

EAEKO SEKTORE PUBLIKOAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO DEKRETUA

ELA sindikatuaren irakurketa

1.- Konplexuei aurre egiteko garaia da

Erdara inposaketa bidez da hegemonikoa da EAEko administrazioetan

ELA sindikatuak euskaldunok gure bizitzako esparru guztietan euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzen du, eta, sindikatua den heinean, berariaz euskaraz lan egiteko eskubidea. Hizkuntza norbere izaeraren adierazpenarekin bat datorren funtsezko elementua da, eta bestelako nortasun adierazpideekin batera, ezinbestekoa da norberaren izaera askatasunez adierazteko hizkuntza eskubideak errespetatzea. Kontrara, norbere izaera adierazterik ez dugun neurrian, euskaldunak bizitzako hainbat esparrutan diskriminatuak gaude, baita lanean ere.

Gaztelaniak eta frantsesak egoera hegemonikoa lortu dute Euskal Herrian inposaketa bidez. Euskara txikiarazitako hizkuntza da, ez txikia. Euskaldunon hizkuntza eskubideen aurkako oldarraldiak ehunka urte ditu; oldarraldi legala, judiziala, poliziala eta militarra aspalditik pairatzen dugu, eta orain oldarraldi neoliberala ere jasaten dugu. Merkatu legearen eta Estatu politiken bitartez, gaztelaniak indarrez hartu ditu hizkuntza minorizatuentzat ekonomikoki errentagarriak ez diren espazio guztiak (zinemak, antzerkigintza, musikagintza, telebista, iratiak...). Sare sozialak komunikazioan gailetzen diren gizarte honetan, erdaren hegemonia are handiagoa bilakatzen ari da. Ondorioz, oraindik ere euskal herritar guztiak gaztelania menperatzera behartuta daude Hego Euskal Herrian, Konstituzioak agindu bezala. Euskaraz jakitea, berriz, hautazkoa da, sarri oztopoz josia, eta hezkuntza sistemak ez du bermatzen.

Euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatuak izatea ezin da norbanakoen ardurara izan, gobernuek sortu behar dituzte baldintza kolektiboak herritar guztion hizkuntza eskubideak espazio guztietan errespetatuak izan daitezen, eta administrazioek, oro har, ez dituzte halako baldintza egokiak sortu.

Are gehiago, lanpostuak prekarizatzeko bultzatutako politiken eraginez, behin-behineko gisa urte luzez milaka langile erdaldun elebakar aritu dira administrazioetan, kasu askotan euskara ikasteko laguntza eta baliabiderik eskaini gabe. Egoera prekario horrek, Eusko Jaurlaritzaren komunikazio eta hizkuntza politika eskasarekin batera, ekarri du langile horietako zenbaitek euskara mehatxu gisa atzematea.

Ondorioz, herritarrontzako oso zaurgarriak diren egoeretan (osasun arloan, justizian, poliziekiko harremanetan, dirulaguntzak eskatzerakoan...) euskarazko zerbitzuak eskatzea oso deserosoa gertatzen da maiz; euskaldunok nabarmendu behar izaten dugu, eta kasu askotan, aurka dator euskaraz jardun nahi izatea, arreta ematen digun langilearen prestakuntzaren, gaitasunaren eta jarreraren baitan. Itzulpen zerbitzuen esku-hartzerik ez dagoen bat-bateko egintza administratiboa guztiak (osakidetza altak, historia klinikoak, poliziek ezarritako isunak, epaiketak, eta abar) erdara hutsez egiten dira. Egoera horren muturreko adibidea Justizia administrazioa da: Justizia Sailaren arabera, 2021ean itzultzaileek soilik 68 deklarazioetan parte hartu zuten, beste ahozko egintza guztiak (epaiketak, ahozko izapidetzeak, lekukotzak hartzea...) erdara hutsez egin ziren. Estatistika hori ez da herritarron hizkuntza borondatearen erakusgarria, pairatzen ditugun oztopoen, presioen eta finean, gaztelaniaren inposaketaren ondorioa dira.

EAEko Administrazio gehienek barne funtzionamendua ere ia osotasunean erdaraz da. Jaurlaritzan bertan, sailburuordetza eta zuzendaritza bakan batzuk kenduta, Sail gehienetan lan erdaraz egiten da, itzulpenei esker kanpoan irudikatzen dena bestelakoa izan arren. Hau da, langile euskaldunak erdaraz lan egitera behartuak daude.

Euskaldunon eta erdaldunen hizkuntza eskubideak parekatzeko ordua da

Euskal eta gaztelera hiztunen hizkuntza eskubideak bermatzeko oinarria elebitasuna da. Egun, baina, EAEko langile publiko guztiak gaztelania bakarrik jakitera behartuta daude; are gehiago, gaztelaniaz jakin gabe ez dago hautaketa prozesuetan parte hartzerik. ELAren iritziz, arrazoizko epe batean elebitasuna bermatu behar da, eta baldintza kolektiboak sortu euskaldunon hizkuntza eskubideak erabat bermatzeko, bai herritar bai langile gisa, erdaldunek jadanik bermatuta duten neurrian berean. Epe horretan euskaldun orok bere burua nabarmendu beharrik gabe, oztopo gehigarririk gabe, euskarazko zerbitzua jasoko duela bermatu behar dute administrazioek, baita langile euskaldun orok bere jarduera euskaraz egin ahal izango duela ere, beti ere herritarrek erdarazko zerbitzua eskatzen ez badiete.

ELAren iritziz, EAEko Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Dekretuak trantsizio hori gidatu beharko luke. Baina trantsizio hori ezin da langileen lepo egin, are gutxiago urteetan behin-behineko kontratuekin lanean aritu direnen aldekarreko esfortzuen bidez. Hurrengo 15 urteetan langile publikoen erdiek erretiroa hartuko dute, euskararen ezagutza maila txikiena dutenek, hain zuzen. Epe hori arrazoizko tartea da administrazioetan aipatutako elebitasuna bermatzeko, erretiroa hartu behar duten langileen erreleboa bi hizkuntza ofizialen ezagutza duten langileekin eginez, eta epe horretan euskaraz ez dakiten langileei euskara ikasteko laguntza emanez. ELAren ustez, helmugan irmoa izateko garaia da, bidean malguan izanik.

Gizartean euskararen ezagutza orokortzen ez den heinean (euskarak egun ez baitu erdarak inposatzeko esparru guztietan duen gaitasunik, bere ezagutza unibertsala berma dadin), hizkuntza eskakizunen bidez erakutsi beharko da euskararen ezagutza, lan eremu publikoan gutxienez. Eta euskaldunon eskubideen egoera askoz okerragoa den neurrian, orekatzeko neurriak hartu beharko dira.

Eusko Jaurlaritzak euskarafoboei men egin die dekretu proposamenarekin

Oldarraldi euskarafobo juridikoa, lege bidezkoa eta politikoa pairatzen ari gara. Oldarraldi horren oinarrian supremazismo erdarazalea: erdararen inposaketa naturalizat eta euskararen aldeko edozein neurri diskriminatzailetzat hartzen duen pentsamendua da. Ondorioz, erdararen erabateko inposaketa ontzat ematen dute, euskaldunon hizkuntza eskubideetan berdintasuna lortzeko edozein urrats gehiegizkotzat hartzen duten berberak. Sektore politiko, patronal, sindikal eta judizial horiek beraiek dira hezkuntzaren bitartez bi hizkuntzen ezagutza bermatzeko euskarazko murgiltze ereduaren kontra egiten dutenak, hau da, etorkizunean ere diskriminatuak izango ei diren erdaldun elebakarrak birsortu nahi dituzte euren posizio hegemonikotik euskaldunon eskubide berdintasuna blokeatuta.

Sektore euskarafobo horiek hiru dikotomia faltsu aurkezten dituzte:

- “Euskararen ezagutza eskatzea diskriminatzailea da”. Administrazioetako lanpostu gehienetarako ezinbestekoak dira goi mailako ikasketak, edo ezinbesteko meritu bilakatu dira administrazioetan lan egiteko. Goi mailako ikasketak eskatzeak ez ei du inor ere ez diskriminatzen; aldiz, euskara eskatzeak bai. EAEko administrazioetako oposaketetan sarritan lanerako *gutxi askorako* balioko duten Espainiako Konstituzioa edo Gernikako Estatutua ikasi behar da ezinbestean, eta hori ez da arazo; euskara ikasi beharra, berriz, diskriminatzailea omen da.
- “Lan eskubideak eta hizkuntza eskubideak ez dira bateragarriak”. ELAk argi du baliabideak eskainita bateragarriak diren bi gai direla, eta langile guztiei behar beste laguntza eskainita, elebitasuna helburu lorgarria dela. Are gehiago, hizkuntza eskubideak lan eskubide ere badira, langile guztiek bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko eskubidea izan behar dute, baina horrek elebitasuna exijitzen du.
- “Euskararen hedapenarekin zerbitzuaren kalitatea kaltetu egiten da”. Gaztelaniaren ezagutza lanpostu guztietarako exijitzeak ez omen du profesional onak lortzea oztopatzen (erdara hutsezko funtzionamendua inposatzea ontzat ematen dutelako), euskararen ezagutza eskatzeak, berriz, profesional onak urruntzen omen ditu. ELAren ustez, norbere hizkuntzan zerbitzua bermatzea kalitatezko zerbitzuaren ezinbesteko osagaia da, eta, era berean, administrazio publikoen eta herritarren arteko hurbiltasuna bermatzeko funtsezkoa da. Profesionalik onenak lan baldintza onekin erakarri behar dira, bereziki behin-behinekotasuna desagerrarazita eta EAEn lan egiteko behar diren bi hizkuntza ofizialak ikasteko laguntzak eskainita.

Sektore euskarafobo horien presioei men egin die Eusko Jaurlaritzak, eta uko egin dio hizkuntza eskubideen berdintasuna defendatzeari, euskaldunon hizkuntza eskubideak etorkizunean ere ez baitira errespetatuko. Horrek ondorio legalak ditu, ondoren aztertuko dugun Dekretuan ikusiko dugunez, baita ondorio soziopolitikoak ere. Supremazistek ez dituzte soilik legeak eta epaitegiak kontrolatzen, iritzi publikoa sortzeko gaitasuna ere badute, eta Jaurlaritzak uko egin dio iritzi publikoaren espazioa borrokatzeari, ziurrenik kalkulu politikoengatik (bereziki euskaltzaleak ez diren herritarren botoa

erakartzeko). Baina berdintasuna defendatzen ez den neurrian, gizartean hedatzen den diskurtso nagusia euskararen aldeko edozein neurri gehiegizkotzat jotzen duena da, eta gaztelaniaren inposaketa erabat normalizat hartzen duena.

Horregatik, ikusiko dugun gisan, 1997ko Dekretuaren elementu garrantzitsuenak mantenduko dira, elebitasuna bermatzeari uko egin dio Jaurlaritzak, eta orain arte oinarritzko hizkuntza eskubideak bermatzeko ere balio izan ez duen Dekretu baten hezurdurari eutsiko dio; euskaldunon hizkuntza eskubideen zapalketa beste belaunaldi batez behintzat luzatuko da.

2.- Dekretuaren edukiak

1. Aplikazio eremua

Sektore publikoa bere osotasunean hartuko du dekretu berriak, aurretik Justizia administrazioa, Hezkuntza Publikoa, Ertzaintza, Osakidetza eta enpresa publikoak kanpo uzten baitzituen. Neurri hori aurrerapausoa den arren:

- Estatuko administrazioa Dekretuaren aplikazio eremutik kanpo geratuko da berriz ere, hizkuntza eskubideen zapalkuntza handiena egiten duen administrazioa, hain zuzen.
- Praktikan, Bigarren Xedapen Iragankorren bitartez, Osakidetzan, Ertzaintzan eta Justizian, EAEko sektore publikoan hizkuntza eskubideak okerren dauden administrazioetan hain zuzen, Dekretua ez da aplikagarri izango 2033. urtera arte. Bien bitartean, moldaketak egin beharko dituzte administrazio horietan 2033an Dekretua bere osotasunean aplikatu ahal izateko, baina orain arteko jarrera ikusita, horrek esan nahiko du EAEko administrazioetako langileen %60k eta erakunde horiekin harremanetan jartzen diren herritar euskaldunek ez dutela Dekretuaren babesik izango beste 10 urtez.

2. Planifikazio tresnak

Orain arte ez zegoen euskararen planifikazioa egiteko tresnarik araututa administrazioetan. Dekretua onartzen denetik aurrera, hiru planifikazio ezberdin egin beharko dituzte Dekretuaren eraginpeko administrazioek:

- Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideak: Administrazioek euskararen erabilera arautu beharko dute, bai zerbitzu hizkuntza gisa, bai lan hizkuntza gisa. Hizkuntzen erabilera arautzea berez egokia da, arautu ezean hegemonikoa den hizkuntza baita modu naturalean erabiliko den bakarra. Hala ere, lan hizkuntza gisa euskarak, kasurik onenean, hizkuntza subordinatu izaten jarraituko du, bereziki bileretan. Era berean, ezartzen diren gomendioak bete ezean eta herritarren eskubideak urratzen direnean ondorioz ez da aurreikusten, ezta neurri zuzentzaile ere. Gainera, erabilera irizpideak ezartzeko epe jakinik ez da zehazten dekretuan.

- Plan Estrategikoak: Ez zaie gutxieneko edukirik esleitzen, soilik onartu beharko direla adierazten da.
- Kudeaketa planak: Plan Estrategikoak gauzatzeko ekintza plana izango dira.

Dekretuan aipatutako eragileen artean ez dira sindikatuak ageri. Bestalde, planen eta erabilera irizpideen onarpen prozesuak eta planifikazio tresnen ebaluazioa entitate bakoitzaren esku geratuko da, ez Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, ez euskalgintza, ez sindikatu, ez herritarren parte hartzerako aukerak ez dira zehazten.

3. Hizkuntza eskakizun asimetrikoen ezarpena

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1, B2, C1, C2 erreferentzia mantentzen da orokorrean, eta erreferentzia hori erabiltzen ez duten administrazioek urtebeteko epea izango dute izendapenak moldatzeko. Herritarrekin ohiko harreman zuzena duten lanpostuetan (hori zer den ez da Dekretuan definitzen) B2 maila ezartzen da erreferentziako maila gisa.

Aurretik aipatutako markoa erreferentzia nagusia izan behar den arren, trebetasun sortzaileak mintzamen eta idazmenaren artean banatuko dira, ondorioz, lanpostu batzuetan posible izango da ahozko eta idatzizko komunikazioan maila ezberdinak eskatzea; profil asimetriko gisa ezagunak dira eskakizun horiek. ELAri profil asimetrikoen aukera ondo iruditzen zaio, baldin eta lanpostuak eskatzen duen euskarazko ezagutza egokiari ihes egiteko bide bilakatzen ez bada, baina Dekretuak ez du amarruak eta iruzurrak saihesteko behar besteko neurririk ezartzen.

Aurrekoarekin batera, ez-gaitasunen bat duten langileentzako hizkuntza eskakizun partzialak ere aurreikusten dira, langileen ez-gaitasunaren arabera ahozko edo idatzizko ezagutza bakarrik eskatzeko aukera eskainiko dutenak.

Era berean, euskarazko Hizkuntza Eskakizuna egiaztatu duten langileak euskaraz lan egin beharreko aukera aurreikusten da. ELAren iritziz, neurri hori ezarri aurretik bermatu beharko litzateke langile euskaldun orok benetan euskaraz lan egiteko aukera izango duela, horretarako prestakuntza egokia eta eguneratua, hala nola, baliabide egokiak eskaini zaizkiela, eta zuzendaritza postuetan dauden arduradunek lana euskaraz egin eta bideratuko dutela. Horrela ez bada, aukera hori erabat hutsala gertatuko da, eta ez du aldaketarik eragingo; eragile euskarafoboek diskurtsoa elikatzeke bakarrik balioko du ondoren praktikan erdaraz lan egiten jarraituko duten administrazioetan. Beste kontu bat da herritarrekiko arretan euskarazko zerbitzua bai ala bai bermatzea beti; horrek hala izan behar du, herritarrona baita zerbitzua jasotzeko eskubidea eta langile publikoena herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko betebeharra.

4. Egiaztapen sistema malgutzea

Orain arteko euskarazko titulu eta ikasketen baliokidetzaz gain, lanpostura sartzeko azterketa euskaraz eginez gero edo hautagaiak lanean euskaraz aritzeko gaitasuna erakusten badu, hizkuntza eskakizuna balioztatzeak aukera jasotzen da Dekretuan. Egiaztapen horiek balioa izango dute bakarrik administrazio zehatz horretan, eta ezingo da erabili beste batzuetan. Eusko Jaurlaritzak dekretua onartu ondoren egiaztapen hori aurrera eramateko prozedura zehaztu beharko du, eta posible da dekretuan azaltzen ez den bermeak aurreikustea ondoren iruzurrak saihesteko. Orain arte aurreikusitakoa, ordea, ez da nahikoa horretarako; bereziki epaimahaien osaketari dagokionez ez dago kontrol neurri egokirik.

5. HAEE egiaztatzaile bakarra

Hizkuntza Eskakizunen azterketen arduradun bakarra Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea izango da aurrerantzean. Neurri egokia da.

6. Derrigortasun indizea mantentzen da

Orain arteko derrigortasun indizea mantenduko da, hau da, entitatearen esparruko euskaldunen eta *erdi* euskaldunen erdiaren proportzioa mantendu beharko da gutxienez administrazio guztietan. Derrigortasun indize hori mantentzeak erakusten du Jaurlaritzaren asmoa ez dela administrazioetan elebitasun orokorturako trantsizio bat egitea.

Orain arteko dekretuaren bidez ezartzen zen administrazio bakoitzaren euskalduntze indizea deuseztatzen ari dira epaileak; aurreko dekretuak ezarritakoa bertan behera uzten ari diren arren, dekretu berrian ez da ezer aldatu, ezta Jaurlaritzaren jarrera ere. Estatuarekiko konfrontazio politiko eta judizialik izan ezean, euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko nahikoa ez den indizea ez da aplikagarri izango aurrerantzean.

7. Salbuespen sistema mantentzen da

Lanpostuaren jabe diren 45 urtetik gorako langileak, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzeaz salbuetsita egongo dira, lanpostuari hizkuntza eskakizuna igarotako derrigortasun datarekin ezartzen baldin bazaio. Kasu horretan ere ez da prozesu mailakaturik aurreikusten, eta ez da kontuan hartzen administrazioetan behin-behinekotasuna %40 ingurukoa dela. Ondoren garatuko dugun moduan, salbuespen sistema aldatzea eta trantsizio epe baterako moldatzea ezinbestekoak dira.

8. Behin-behineko langileei begira neurririk ez

Aurreko puntuan azaldu bezala, behin-behinekotasuna ez da azaltzen dekretuan. Behin-behinekotasuna murriztea, orain arte lanean aritu diren langileak kontsolidatzea eta euskalduntzea, hala badagokio, eta hori egin ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak eskaintzea Dekretu honen muinean egon beharko liriteke. Administrazioak euskalduntzeko, batetik, eta orain arte euskalduntzerik izan ez duten langileek euskara mehatxu moduan har ez dezaten.

9. Euskara-gaitasuna meritu gisa murriztea eta azterketak euskaraz derrigorrez egiteko aukera

Lanpostuen horniketa sistemetan euskara meritu gisa jasoko da derrigortasun datarik ez duten lanpostuetarako: %5etik (B1 ahoz + B1 idatziz) %20ra (C2+C2). Lanpostuak derrigortasun data gaitasuneko hizkuntza eskakizuna baldin badu, lanpostuari dagokiona baino hizkuntz eskakizun handiagoa egiaztatuta izatea ez da meritu gisa kontuan izango. Azken elementu hau izugarri larria da, herritarrei zerbitzu hobea emateko aukera izatea ez baia kontuan hartuko. Bestelako edozein ezagutzarekin berariazko debeku hau ez luke inork onartuko (gradu bat exijitzen den lanpostu batean graduondo bat izatea, informatikako oinarriko ezagutza behar den lanpostu batean goi mailakoa izatea, adibidez, ez saritzea). Zergatik ezartzen da debeku hau soilik euskararentzat? Honek ere argi erakusten du konplexuz beteriko dekretua dela hau.

Azterketa soilik euskaraz egiteko aukera balia daiteke euskaraz jardun behar duten lanpostuetarako. ELAren ustez, neurri hori ontzat emateko ondoren azalduko diren ekarpenak kontuan hartu beharko dira.

10. Euskarazko lanpostuetan formazioa euskaraz derrigorrez jasotzeko aukera

Langile guztiek euskaraz formazioa jasotzeko eskubidea onartzen da, eskubide hori gauzatzeko inolako neurririk aurreikusten ez den arren. C1 eta C2 maila egiaztatuta duten langileek formazioa derrigorrez euskaraz jasotzea erabaki dezake administrazioak. Kasu horretan ere halabeharrez euskaraz jasotzeko aukera azaltzen da, praktikan euskarazko formazio eskaintza oso mugatua izaten baita. ELAren iritziz, euskarazko gaitasuna izateko formazio tekniko euskaraz ere jaso behar da, eta administrazioek langileek behar bezala lan egin ahal izateko ezagutzak euskaraz hedatuko dituztela bermatu behar dute.

11. Osakidetza, Justizia administrazioa, Ertzaintza eta orain arte dekretupean izan ez diren administrazio eta enpresa publikoetarako gehiegizko moldatze epea

Orain arte dekretupean egon ez diren administrazioen euskalduntzea izugarri atzeratuko lukeen trantsizio epe bat ezartzen da, 10 urtekoa, hain zuzen. Gainera, egun Osakidetza duen hizkuntza eskakizun eskala gainditzeko asmorik ez dago (beste administrazioetako baina ezagutza txikiagoa ontzat ematen duena, esaterako medikuei B2 maila eskatzea mediku txostenak egin behar dituztenean).

12. Dekretuan garatzen ez diren funtsezko gaiak

Dekretuak hainbat gai lantzeke utzi ditu, ELAren iritziz administrazioen euskalduntzea bermatzeko ezinbestekoak direnak:

- Langileak euskalduntzeko formazioa.
- Epe laburrean langile euskaldunekin betetzea posible ez den lanpostuetarako neurriak eta laguntzak.
- Parte hartze demokratikorako espazioak, parte hartzerako organo bakarra, HAKOBA, erabat instituzionala baita, hainbat administrazioek osatua.
- Zuzendaritza postuei buruzko aipamenik ez dago.
- Azpikontratak ez dira azaltzen.

13. Ondorioak

Ikusi bezala, Dekretuaren edukiak ez du helmugarik ezartzen eta ez du berme berririk orain arte bete ez diren hizkuntza eskubideak bermatzeko. Eusko Jaurlaritzak administrazio publikoetan elebitasunari, hala nola euskaldunon eta erdaldunen hizkuntza eskubideak parekatzeari uko egin dio. Aplikazio eremua zabaltzea aurrerapausoa izango da, baina helmugarik ezarri ezean eta hizkuntza eskakizunen indizea aldatu ezean, ez da aldaketa estrukturalik izango. Gainera, aplikazio eremua zabaltu bai, baina euskara planak “egokitzeko” hamar urteko “moratoria” bat emanda, aurrerapausoak hutsaren hurrengoan geratzen dira.

EAEko herritar guztien hizkuntza eskubide guztiak bermatzeko beharrezkoak diren aldaketa estrukturaleri uko egiten die dekretuak, baina bigarren mailako gai batzuetan aldaketak eragingo ditu, kasu guztietan langileen kontura. Adibidez, dekretuak ez du behin-behinekotasuna kontuan hartzen, ezta langileak euskalduntzen jarraitzeko formazioa eta baliabideak eskaintzeko irizpiderik ere. Ondorioz, administrazioen euskalduntzea langileen aldebakarreko ahaleginez egingo dela aurreikus daiteke. Administrazioetako hainbat berdintasun planek erakutsi dute behar beste laguntzarik eskaintzen ez denean, bereziki emakumeek izaten dituztela euskalduntzeko arazoak, euskalduntzea lanordutan egiten ez den neurrian bestelako zereginak albo batera uzteko zailtasun handiagoak dituztelako. Gainera, laguntza behar bezala antolatzen ez denean diskurtso euskarafoboa elikatu egiten da. Eusko Jaurlaritzak euskararekin ez ezik, beste edozein gairekin berdín egiten du, aldaketa guztiak jadanik lanean aritu diren langileak kontuan hartu gabe egiten ditu.

euskarafoboa elikatu egiten da. Eusko Jaurlaritzak euskararekin ez ezik, beste edozein gairekin berdinean egiten du, aldaketa guztiak jadanik lanean aritu diren langileak kontuan hartu gabe egiten ditu.

Esandako guztiagatik, ELAk argi du hori ez dela ez EAeko gizarteak, ez administrazio publikoetako langileek behar dugun dekretua, eta sakoneko aldaketa egin ezean, bertan behera geratu dadin exijituko dugu.

3.- ELAren ekarpenak

1. Aplikazio eremua

Puntu hau aurrerapauso garrantzitsua da. Hala ere, badira aldatu beharreko elementuak:

- Lehenik, bigarren artikuluan Estatuko Administrazioa ere Dekretu horren menpe jartzea eskatzen du ELAk. Gernikako Estatutuaren 6. artikulua baita, EAeko organoetarako dagokie hizkuntza politika zuzentzea EAEn, eta 10.24 artikulua interpretazio hedakorra egin behar da, estatuko administrazioa, EAEn finkatuta dauden zerbitzuetan, euskal sektore publiko gisa izendatzeko. Hori egin ezean, EAeko herritarrentzat oso garrantzitsuak diren zerbitzu batzuetan euskaraz artatuak izatea ezinezkoa izango da aurrerantzean ere, Gizarte Segurantzarekin edota RENFErekin, adibidez.
- Bigarren xedapen gehigarria bertan behera gera dadila eskatzen dugu, orain arte dekretu honen menpe izan ez diren administrazioentzat moldatzeko epea 10 urtekoa izatea gehiegizkoa baita. Are gehiago, 10 urtean milaka langilek hartuko dute erretiroa administraziohorietan, eta orain hartzen ez diren erabakiek erabat baldintzatuko dute etorkizuna.

2. Planifikazio tresnak

ELAri ondo iruditzen zaio administrazioak euskalduntzeko planifikazio tresnak zeintzuk izan behar diren zehaztea. Hala ere, tresna horiek eraginkorrak izateko elementu asko zehaztu behar dira:

- 6. artikuluan tresna horien ezarpena sindikatuarekin negoziatu behar dela jasotzea eskatzen du ELAk.
- Ebaluazioetan azaldutako adierazle guztien berri publikoki ematea exijitzen du ELAk, eta aldiro sindikatuei adierazle horiek eta adierazleen balorazioa eskaintzea.
- Plangintzen garapenean zehar, bi urterik behin, helburuen ebaluazioa egin behar da, eta sindikatuei informazio osoa eskaini.
- Tresna eta alor guztietan euskaraz aritzeko eskubidea uneoro bermatuko dela azaldu behar da.

- HPSk onartuak izan aurretik, plangintza tresnei buruzko txostenak egitea nahi du ELAk eta txostenak publiko egitea.
- Administrazio publikoetan oro har, HPSk sortutako planifikazio eredu bat oinarri hartzea eskatzen du ELAk. 5. artikulua jaso behar luke planifikazio eredu hori bi urteren buruan sortuta egongo dela, eta administrazio guztiek eskuragarri izango dutela.

Ezarri beharreko hizkuntza irizpideei begira, irizpide eta helburu orokor eta partekatu batzuk egon behar dira, egun daudenak baino sendoagoak, eta horien garapena ondoren administrazio bakoitzak langileen ordezkartzearekin negoziatu behar du, horretarako jarraian aipatzen diren zehaztapen guztiak batu beharko lirateke 11. eta 12. artikuluetan:

1. 15 urteko epean edozein administrazioetako langilek euskara zerbitzu hizkuntza moduan erabili ahal izatea eskubide moduan azaltzea.
2. Bien bitartean, euskarazko zirkuituak bermatzea administrazio guztietan, dekretua martxan jarri eta 5 urtetara gehienez ere. Edozein administraziotan harreman eta zerbitzu guztiak euskaraz hasi eta bukatzeko bidea antolatuta egon behar da. Aldaketa horiek lan kargetan izan ditzaketen ondorioak kontuan hartzeko neurketak egitea eskatzen du ELAk, eta horien ondorioak administrazio bakoitzean negoziatzea.
3. Euskaraz lan egiteko eskubidea aintzatestea herritarrek erdaraz artatuak izan daitezkeen eskatu ez duten harremanetan, ahoz zein idatziz. Edozein langilek barne lana euskaraz egin ahal izango duela bermatu behar da.
4. Zuzendaritzek lana euskaraz bideratzea epe jakin batetik aurrera, euskaraz sortu eta itzulpenak erdarara egiteko plangintzarekin. Bien bitartean, zerbitzu bakoitzeko langileen euskalduntze mailaren arabera eta eremu soziolinguistikoaren arabera zerbitzu horietan gutxieneko euskarazko sorkuntza bideratu beharko lukete zuzendaritza postuetako arduradunek.
5. Euskaraz dakiten langileak identifikatu eta, batez ere, euskara beharrezkoa duten lanpostuak.
6. Euskarazko zirkuituak edo zerbitzua euskaraz ematea bermatzen duten espazioak seinalitika argiarekin identifikatu behar dira.
7. Laneko bileretan euskaraz jarduteko eskubidea bermatu behar da, horretarako bilera guztietan euskaldunek euskaraz egiteko eskubidea izango dutela jaso behar da, eta euskararen ezagutzarik ez duten langileentzat behar dituzten baliabideak eskaini. Interpretazio zerbitzuak indartu eta eskueran jarri behar dira horretarako.

3. Hizkuntza eskakizun asimetrikoak ezartzea

Hizkuntza eskakizun asimetrikoak ezartzea ondo iruditzen zaio ELAri, baina zehaztapen batzuekin:

- 23.3 artikuluan gehitzeko: Herritarrek eskatzen dietenean langileek euskaraz lan egin beharko dute, baina langileek euskaraz lan egiteko eskubidea ere izan behar dute bestelako eskaera espresik egiten ez zaienean. Administrazioen barne-funtzionamendua euskaldundu ahal izateko zuzendaritzako kideek lana euskaraz bideratuko dutela bermatu behar da, eta beraiekiko exijentzia-maila berariaz azaldu behar da Dekretuan aurretik aipatutako indizea erabilita.
- Hizkuntza eskakizun asimetrikoak izatea ondo iruditzen zaio ELAri, baina eskakizunen degradaziorik ez izateko bermeak behar dira. Eskakizun asimetrikoak ezartzeko HPSren aldeko berariazko txostena behar dela barnebiltzea proposatzen du ELAk 22.7 artikuluan.

4. Egiaztapen sistema hedatzea

Lanpostura sartzeko azterketaren bidez euskara gaitasuna egiaztatze aukera egoki deritza ELAk, baina epaimahaien osaketa baldintzetarako bermeak behar dira. Dekretuaren 39. artikuluan, adibidez, bide hori aukeratzen denean HAEEko kide bat epaimahaietan aholkulari aritzea eta berariazko txosten bat egin dezala eskatzen du ELAk, loteslea izan ez arren, prozesuaren gardentasuna bermatzeko.

Lanaren bitartez ezagutza egiaztatzeari ere egoki deritza HAEEren kontrolpeko prozedura bada.

5. HAEE egiaztatzaile bakarra

ELA ados horrekin.

6. Derrigortasun indizea

Dekretuaren ahulezia argien erakusten duen puntua da. 25. artikulua goitik behera aldatu behar da.

- Indizeak bermatu behar du 15 urtetan langile guztiek lanpostuari dagokion euskara maila izango dutela.
 - Hasteko, lanpostu bat hutsik geratu ahala hizkuntza eskakizuna ezarri beharko litzaioke derrigortasun data iraungita.
 - Beste kasu guztietan 15 urteko epe horretan ezarri beharko lirateke hizkuntza eskakizunak iraungitako derrigortasun datarekin.
- Lanpostu batzuetan euskara maila egokia duen langilerik ez da izango (medikuak, esaterako), kasu horietan langile gazteleradun elebakarrak finkatu beharko lirateke ondoren euskalduntzeko baldintzarekin, eta administrazioak horretarako baliabideak jarri behar ditu.
- Esan bezala, derrigortasun data iraungia izan behar luke lanpostuak, bertan zegoen langileak hori uzten duenean, barne mugikortasuna erabiltzen bada horniketarako, mugitu den langilearen jatorrizko lanpostuari data iraungia ezarri beharko litzaioke.

- Bost urteko epean euskarazko zirkuituak bermatzeko aldaketak egin beharko lirateke lanpostu zerrendetan. Zirkuituetan dauden eta euskara maila nahikorik ez duten langileentzat pareko lanpostuak eskainiko lirateke.
- Lanpostu zerrendetatik kanpoko lanpostuetan hizkuntza eskakizuna zerrenda barneko proportzio berean ezarri beharko dira. Proportzio hori betetzen ez bada, lanpostu berri guztietan hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa izango litzateke.

7. Salbuespen sistema aldatu behar da

- Salbuespenak bi baldintzei erantzun behar die. Batetik, administrazioari dagokio: euskara ikasteko baliabideak eta denbora edota liberazioa eskaini behar die langileei.

Bestetik, langileek laguntza horiek probesteko esfortzua egin behar dutela erakutsi beharko dute. Hortaz, salbuespen sistema hurrengo izatea proposatzen du ELAk:

- Hurrengo 15 urteetan erretiroa hartu eta orain arte administrazioan urte luzez aritu diren langileak erabat salbuetsi behar dira, baita behin-behinekoren kasuan ere lanpostua finkatzeko, eta horien erretiro adina helduek lanpostu horietara sartuko diren langileek lanpostuari dagokion euskara maila izan beharko dute.
- Gazteagoak diren behin-behineko langileen kasuan, adinaren arabera eskala bat sortzea proposatzen du ELAk. Eskala horren baitan langileek euskara ikasteko epe zehatza izango lukete eta administrazioak horretarako laguntza eskainiko lieke, eta baldintza horrekin lanpostuan finkatzea proposatzen du ELAk.
- 50 urtetik gorako langileentzat erabateko salbuespena ezartzea planteatzen du ELAk aurrerantzean ere, aipatutako 15 urteko epea gainditu ondoren, administrazio horretan 10 urteko antzinakotasuna badute, euskara ikasteko ahalegina egin badute (ikastaroen aprobetxamendu bitartez) eta lanpostuak helburu duen hizkuntza eskakizuna baino bat gutxiago egiaztatuta badute.

8 Behin-behineko langileentzako ez dago neurririk

Behin-behinekoei begirako eskaera zehatzak eta gehitu beharko liratekeen artikulak:

- Aurretik lanean egon diren behin-behinekoentzat salbuespen araudi bat ezar daiteke:
 - Adinaren arabera eta esperientziaren arabera, lanpostua finkatu ondoren euskara ikasteko obligazioarekin eta erremozio aukerarekin.
 - Oraindik ere behin-behineko gisa arituko direnentzat, artean ez dutelako lanpostua finkatzeko aukerarik izan aurreko puntuan aipatutako eskala ezartzea eskatzen du ELAk, adinaren arabera eta formazio egokia eskainita euskalduntzeko aukera izan dezaten behin-behineko kontratuak izateko aukera galdu baino lehen.
- Aurretik administrazio horretan lanik egin ez duten behin-behineko langile guztiei euskarazko ezagutza eskatu beharko litzateke.

- Mugikortasunean (lekualdatze lehiaketetan eta antzekoetan) parametro horiek erabili beharko dira.

9. Azterketak euskaraz derrigorrez egiteko aukera eta meritatzea

Puntu honetan ere aldaketa sakonak behar ditu Dekretuak:

- Lanpostuari dagokiona baino euskara maila handiagoa izatea beti jasoko da meritu gisa, gutxienez merituen %5 jaso beharko litzateke puntu honetan.
- Hautaketa prozesuetan azterketak euskaraz sortuko direla bermatu behar da.
- Azterketak euskaraz egiteko derrigortasunetik 45 urtetik goragoko langileak salbuestea eskatzen du ELAk, baita administrazio horretan 10 urteko antzinakotasuna duten langileak ere.
- Euskara lan jardun izango duten lanpostuetan azterketa euskaraz egitea derrigorrezkoa izan dadila eskatzen du ELAk.
- Gaitegiak euskaraz (eta egoki) egotea bermatu behar du administrazio bakoitzak horniketa prozesuetan.
- Epaimahaikide guztiak elebidunak izatea bermatu behar da.
- Garapen profesionalen derrigorrez euskararen ezagutza eta herritarrek eskatzen dutenean erabilera bermatu izana beti baloratu dadila eskatzen du ELAk.

10. Euskarazko lanpostuetan formazioa euskaraz derrigorrez jasotzeko aukera

Administrazioek langileentzat beharrezkoa den formazioaren %50 (euskara hobetzeko berriazko prestakuntzaz gain) behintzat euskara hutsez eskainiko dutela azaldu beharko luke dekretuak. Eta, era berean, karrera profesionalerako egokia den formazioaren erdia euskara hutsez eskainiko dela ere bermatu beharko luke administrazio bakoitzak.

11. Osakidetza, Justizia administrazioa, Ertzaintza eta orain arte dekretupean egon ez diren administrazioetarako “moldatze epea” gehiegizkoa da

Ez da zilegi administrazioko langileen erdiak baino gehiago biltzen dituzten administrazio publikoak, hain eragin handikoak gainera, dekretuaren eraginpetik kanpo uztea hamar urtez, eta ez dago epe hori justifikatzen duen arrazoirik. Moratoria hori ezartzen bada, milaka eta milaka herritar eta langile kaltetuak izaten jarraituko dute, euskaldunak zein euskalduntze prozesuan ari direnak.

Horrez gain:

- Garapen profesionalaren ondorioetarako C1 maila saritu dadila garapenerako erabiltzen diren beste parametroen maila berean.
- Herritarrei euskarazko arreta berriaz ematen dieten langileak ere saritzea eta horretarako

jarraipen sistema ezartzea.

- Euskarazko idatzizko maila jaso behar duten lanpostuetan C1 (edo C2 lanpostu jakinetarako) erreferentzia izan dadila. Aipatutako lanpostuetan, orain arte B2 maila esleitu izan duten erakundeei trantsiziorako 10 urteko epea ezartzea eskatzen du ELAk, langileei maila hori lortzeko plangintza zehatzak ezarrita eta beharrezko baliabideak eskainita.

12. Langileen euskalduntzea

Dekretuan ez da honi buruzko ezer azaltzen, ELAren ustez hurrengoak gehitu beharko lirateke:

- Euskara ikasteko aukera langileen eskubide gisa jaso dadila. Langile orok eskubidea izan behar du bere lanbideari dagokion euskara maila lortu arte laguntzak jasotzeko, eta, edonola, C1 maila lortu arte.
- Epe laburreko kontratuak dauzkaten behin-behinekoek euskalduntzea garatu ahal izateko ikastaroetan jarraitzeko ordutegi moldaketak egin, eta liberazio partzialak jasotzeko eskubidea izan behar lukete.
- Interinoak erabat liberatzeko aukera egon behar luke.
- Euskalkiek indar handia duten eremuetako lanpostuetarako formazio berezia emango da, langileak herri horietako euskalkien oinarritzko ezagutza eskura dezaten.
- Aipatutako salbuespen arauen arabera euskararen ezagutza lanpostuan finkatu ondoren erakutsi beharko duten langile guztiek (euskara ikasteko erabiltzen diren parametro orokorren eta onartuen arabera) euskara ikasteko beharrezko denbora liberatuta eman ahal izango dutela bermatu behar da.

13. Parte hartze demokratikoa arriskuan

Dekretuaren ezarpenerako eta jarraipenerako ez da espaziorik aurreikusten euskalgintzarentzat, sindikatuontzat edo bestelako eragileentzat. Atzerapauso larri eta deigarria da, aurreko Normalizazio Dekretuarekiko. Gure ustez, langileen ordezkarien edota euskalgintzaren parte hartzea ezinbestekoak dira. Erabilera planek aurrera egiteko aldagai erabakigarria da herritarren eta langileen borondatea eta ekimena. Herritarren eta langileen parte hartzerik gabeko planak, bidea labur.

14. Zuzendaritza-kideen euskara-maila

Zuzendaritza postuetako langileek C1 maila dutela bermatzea galdatzen du ELAk. Eta goi kargu guztien (zerbitzu buruetatik gora) euskara maila zehatza zein den aitor dadila. Euskara planek benetan garatzeko aukerarik izango badute, zuzendaritza kideen euskarazko gaitasuna eta euskararen normalizazioarekiko jarrera erabakigarriak dira, hizkuntza politikaren arduradunek orain arte onartu eta azpimarratu izan duten bezala. Ezin zaie langileei eskatu, arduradunak egiteko prest ez dauden hori.

15. Azpikontratak ezin dira Dekretutik at geratu

Azpikontratak eta itundutako zerbitzuak ez dira azaltzen dekretuan, zerbitzu publikoen azpikontratazio maila oso handia den arren. ELAren ustez, azpikontratetako eta itundutako zerbitzuetako langileek euskalduntze bide bera egiteko aukera izan behar dute (itunpeko eskoletan IRALEn parte hartuta edo anbulantzietan Osakidetzako euskalduntze programetan, adibidez), horietan ere euskara gutxienez zerbitzu hizkuntza gisa erabili dela bermatzeko eta azpikontratetako zein itundutako zerbitzuetako langileek euskaraz lan egiteko eskubidea bermatuta izan dezaten. Zerbitzu publiko bat ematen dituen neurrian, erakunde publikoek dauzkaten betebeharrak berberak dituzte azpikontratek ere.

4.- Bestelako dekretu bat behar dugu

ELAk LABekin eta Kontseiluarekin batera dokumentu honetan azaltzen diren antzeko parametrotan eskaera egin zion Eusko Jaurlaritzari orain urtebete bestelako dekretu bat onar zezan. Orain arte Eusko Jaurlaritzak nahiago izan du gutxiengo sindikalari eta patronalari kasu egin eta herritar zein langile euskaldunak diskriminatzen jarraituko duen dekretua landu. Oraindik ere bada tartea EAEko herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuko dituen Dekretua onartzeko.

Administrazioei dagokie aitzindariak izatea eta euskaldunentzako lehen jardungune erosoak izatea. Horrelakorik erabaki ezean, ELAren ustez hobe litzateke aurreko Dekretuarekin jarraitzea, egun indarrean dagoena hobetzeko aldaketa sakonik ekarriko ez badu.

4.- Necesitamos otro decreto

Haçe un año ELA, junto con LAB y Kontseilua, hizo al Gobierno Vasco una petición en parámetros similares a los de este documento para que aprobase un decreto diferente a este. Hasta ahora el Gobierno Vasco ha preferido escuchar a la minoría sindical y a la patronal, y ha redactado un decreto que seguirá discriminando a ciudadanías y personas trabajadoras euskaldunes. Aún hay margen para que se apruebe un decreto que respete los derechos lingüísticos de toda la ciudadanía de la CAPV. Las administraciones deben ser pioneras y ser los primeros ámbitos donde la gente euskaldun pueda encontrarse cómoda. Si se renuncia a ir por esa vía y de que el nuevo texto no vaya a suponer cambios sustanciales que mejoren la situación actual ELA considera que sería mejor continuar con el Decreto anterior.

- Debería existir la posibilidad de liberar totalmente a las personas interinas.
- Se impartirá formación especializada en ámbitos donde los dialectos del euskara tengan fuerza, con el fin de que las trabajadoras y trabajadores adquieran el conocimiento básico de la variedad dialectal de la localidad en cuestión.
- Con arreglo a las normas de exención citadas se tiene que garantizar que las personas que deban acreditar su conocimiento del euskara una vez haya consolidado su plaza (en función de los parámetros generales y aceptados que se emplean para aprender euskara) puedan emplear el tiempo necesario para aprender euskara en situación de liberadas.

3.13. La participación democrática, en peligro

A la hora de implantar y hacer seguimiento del decreto no se prevé ningún espacio para las entidades que promocionan el euskera, los sindicatos u agentes de otro tipo. Esto supone un retroceso grave y notorio con respecto al anterior Decreto de Normalización. En nuestra opinión la participación de la representación de trabajadoras y trabajadores o de la euskalgintza resulta imprescindible. Para que los planes de uso se puedan llevar adelante la voluntad e iniciativa de la ciudadanía y de las trabajadoras y trabajadores resulta decisiva. Los planes que no cuenten con la participación de estos colectivos tienen una perspectiva de futuro muy corta.

3.14. Nivel de euskara de las direcciones

ELA demanda que las personas que trabajan en puestos de dirección tengan el nivel C1. Y que se reconozca el verdadero nivel de euskara de todos los altos cargos (a partir de jefaturas de servicio). Si se pretende que los planes de euskara tengan una posibilidad real de desarrollo, la capacidad lingüística y la actitud hacia la normalización de las direcciones son decisivas, tal como han venido reconociendo y subrayando los responsables de la política lingüística. No se puede exigir a las trabajadoras y trabajadores algo que sus responsables no están dispuestos a hacer.

3.15. Las subcontratas no pueden quedarse fuera de este Decreto

En el Decreto no se habla de las subcontratas o los centros concertados, a pesar de que el nivel de subcontratación de los servicios públicos es muy elevado. ELA cree que las personas que trabajan a través de las subcontratas o centros concertados deben tener la misma oportunidad de euskaldunización (participando en IRLA en los centros educativos concertados o en los procesos de euskaldunización de Osakidetza en las ambulancias, por ejemplo), para garantizar que en estas empresas el euskara al menos se pueda utilizar como lengua de servicio y su personal tenga derecho a trabajar en euskara. En la medida en que ofrecen un servicio público, las subcontratas y centros concertados tienen las mismas obligaciones que las instituciones públicas.

3.10. En las plazas en euskara, posibilidad de recibir obligatoriamente formación en euskara

El decreto debería establecer que las administraciones han de garantizar que al menos el 50% de la formación que sea necesaria para su personal (aparte de la necesaria para mejorar el conocimiento del euskara) debe ofrecerse en euskara. Asimismo, cada administración debería garantizar que la mitad de la formación dirigida a la carrera profesional se ofrezca exclusivamente en euskara.

3.11. El "periodo de adaptación" para Osakidetza, administración de Justicia, Ertzaintza y administraciones que hasta ahora estaban fuera del ámbito de aplicación del decreto es excesivamente largo

